


# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko maiatzaren 24a

\*



## Leitzarren historia erakusgai

■ Jaione Astibia eta Itziar Altzelai Leitzako Kultur Taldeko kideek, *Lehenko kontuk eta bizimoduk* erakusketa antolatu dute Kultur Astearen barruan. Erakusketa igandera arte egonen da ikusgai Leitzako udaletxean. Erakusketaren oinarri, iazko Kultur Astearen baserri bildu eta era-

kutsi zituzten tresna zaharrak hartu dituzte. Horretaz gain, Udaleko Artxiboan sartu eta Leitzako bizimodu, lanbide eta ohiturei buruz aurkitutako agiri eta informazioak jaso dituzte, 1512. urtetik aurrera. Izan ere, aurrekorik ezer ez dago, Leitzako Udala suak hartu baitzuen urte horretan. ■

## Udarako poliziak bermudetan

Lur deslaia

PILI YOLDI



Ezin nuen sinetsi nire begien aurrean ikusten ari nintzena: Guatemalan eta polizia bikote bat galtza motzetan bizikletaz patruilatzen. Urteetan zehar hainbeste uniforme ilun ikusi ondoren —sorbaldan eta aurrealdean gurutzatutako kartutxerak, fusilak eta metrailetak, ur-ontziak, labanak eta guda egiteko mota guztietako tresnak—, Guatemalako herritarrek nirea bezalako haridura erakusten zuten Antigua hiriko kaleetan.

Ezinezkoa ematen badu ere, beste mota bateko polizia asmatu egin omen dute orain dela gutxi: udarako polizia, turistak ez ikartzeko aginduarekin. Mauka motzeko atorra txuri-txuria, bermudak eta kirola egiteko zapatak, txirrindulariek eramaten dituzten eskularruak, betaurreko beltzak, kaskoa eta guzti. Gerrikoaren alde batean zeramaten pistola eta bestean eramaten zuten *walkie-talkie*-ak ez dira txirrindularien mailoten gainean sarritan ikusten baina...

«Antiguako Udalak jarri ditu, turistak

babestu eta informatzeko, betiko uniformatuei galdetzeraz ez baitira ausartzen», azaldu zidan Santiago Atitlaneko *huipil*-ak saltzen ari zen ondoko ama gazte batek. «Eta ondo lan egiten dute?» galdetu nionean egia biribila esan zidan: Aurreko astean *gringo* talde bat kexatu omen zela, polizi-txirrindulariak sarrera kobratzen ari baitziren hirian sartzeagatik.

Baina asmakizuna ez omen zen jatorriz guatemalarra: handik hilabete batera Mexikoko Guadalajara hiriko azokan ginen erosketak egiten, eta hara non ikusten ditugu itxura horretan jantzi-talderako bikoteak hirigunea zaintzen. Modelo berdina —bermudak, bizikleta, betaurrekoak, igoal-igoalak—. Kontatu zitutenez, pozik omen ziren Guadalajararako lapurrak bolada hartan, agente bietako bat bion bizikleta zaintzen gelditzen baitzen, bestea *txortzoaren* atzetik korrika joaten zen bitartean.

Filipinetan ere orain gutxi onartu dute bermudetako *pret-a-porter* eredua. Telebistan ikusten zenez, toki guztietan

bezala besoak luzatzen eta tolestean eta txistu egiten zuzentzen dute kaleetako trafikoa, baina berezitasun txiki batekin: *La Macarena* izeneko dantza egiten dute kotxeak ordenatzearekin batera.

Kolore guztietako poliziak dituen gu bezalako hiritar batek ez zuen zertan harritu polizi janzkera berri hau ikusirik, baina auskalo hemendik gutxira —orain udaran Euskal Herrira turistak ekartzeko kanpainak gogorazten direnean— ez ote ditugun, adibide gisa diot, municipalak bermudetan ikusiko. Nahiko lan berezia izanen da Arkauten edo beste akademietan bizikletaz ibiltzen patruilatzeako ohitura hartzea hankak erakusten. Eta are gehiago udako uniformearen diseinu berria asmatzea (gorriak? urdinak? beltzak? berdeak? konbinatuak?). Gai honetaz —polizien ikasketetan, noski— Nafarroa eta Euskal Autonomi Elkartearen arteko kolaborazioa aspaldikoa denez, agian elkarrekin hasiko dira itxuraldaketa honetan pentsatzen. Ez dakit...hemen udara hain laburra izanda... X

## ✂ GURE AUKERAK

### KONTZERTUAK

**Tafalla:** Iñaki Askuntzek Sunset hirukotearekin batera jazz kontzertua eskainiko du larunbatean, hilak 25. Azoka tabernan eta 00.00etatik aurrera.

**Barañain:** Pasaiko Ilunbe kontserbatorioko orkestrak kontzertua eskainiko du Andra Mari elizan, 20.15etatik aurrera.

### DANTZA

**Zizur Nagusia:** Senza Tempo taldeak dantza ikuskaria taularatu du gaur, herriko kultur etxean, 22.00etatik aurrera.

### ERAKUSKETAK

**Corella:** Raquel Martinez Olatzen margoak herriko Kultur Etxean ikusgai izanen dira heldu den ekainaren 1a arte. Erakusketa 17.00etatik 21.00etara irekita egoten da.

**Iruñea:** 'TBO'-n argitaratutako Franz Doktoarearen smakizunak Gotorlekuko Armen aretoan izanen dira ikusgai hilaren 29ra arte, lanegunetan 18.00etatik 20.30etara, eta jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara.

### IBILALDIAK

**Zubitza:** Herrian hondar toxikoen zaborteia jartzearen kontrako martxa egingen dute bihar, hilak 25. Ibilaldia Potasaseko meategitik irtengo da, 19.30etan.

**Bidankoze:** Bidankozetik Uzta-rotzera ibilaldia egingen dute igandean, hilak 26, Nafarroako Kirol Elkartek antolatuta. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 224324 telefonora.

**Iruñea:** Nafarroako Kirol Elkar-teko Mendi Eskolak lakuen arteko zeharkaldia egingen du Panticosa inguruan igandean, hilak 26. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 224324 telefonora.

### LEHIAKETAK

**Iruñea:** Sanferminetako Herri Barraken Batzarrak jai egitarauan agertuko den irudia aukeratzeko kartel lehiaketara deitu du. Obrek DIN A2 neurrikoak izan beharko dute, eta ekainaren 4a baino lehen aurkeztu beharko dira Eguzkiren egoitzan (Kale Berria 4, 1. ezk.). Irabazlearentzat 50.000 pezeta saria dago.

### IKASTAROAK

**Iruñea:** Argazki ikastaroa antolatu du Alde Zaharreko Auzo Elkartek (Aldapa kalea, 5). Klaseak maiatzaren 27an hasi eta ekainaren amaieran burutuko dira. Ordutegia: astelehen eta asteazkenetan 19.00etatik 22.00etara. Gaur bertan amaituko da izena emateko epea.

### BESTELAKOAK

**Iruñea:** Herri meza egingen dute bihar, larunbata, Bergamin kaleko Jesuiten elizan. Meza arratsaldeko 6.45etan hasiko da.

## nafarkronika

Patxi Larrion

# Edukiz bete

**E**lgoibartarra duzu Madrildik bidalitako Gobernu Ordezkarri berria. Berria baino gehiago, zahar-berritua, aurreko hamarkadaren hasieran beren indarren aitzinean egiten baitzen korrika. Bestelako lasterkaldiak ere eragozten saiatu zen gure gizona, Korrikaren bigarren edizioa Nafarroatik igarotzeko debekua ezarri baitzuen: debekuaren arrazoia, izaera juridikorik ez zuen talde batek antolatua izatea. Afera entitate handiko elkarteak konpondu zuen. Gure historia hurbilak muga igarotzera behartu gaitu. Era guztietako mugak gureak, anitzetan barne-barnekoak, geronek paratuak, zuhurtasuna ez omen da gure dohainetako bat.

Egun, iraunkortasunaren aukerak ustekabeen harrapatu du bat baino gehiago. Hegoaldeko bi Komunitateak inoiz baino urrunago zi-

ruditenean, batasunaren mamua berpiztu dute. Orriotan bibotedunaren hautuaz mintzo ginen. Alta, bestelako kontuak ziren hizpide. Oraingo honetan elkarlana da batzuen izua piztu duena.

Elkarlana egon badago, arestian aipatu bezala, muga igarotzen nahitanahiez ikasi behar izan dugu. Bi Komunitateetako gobernukideek hitzartu dutena ezerezean gera daiteke. Batzuen aburuz, funtsik gabeko hitzarmena da aurrean duguna. Ainhoakoak ere tankera bereko kritikak jaso zituen. Beti ere, uzi honen gakoa, horrelako hitzarmenek zabaltzen duten eremua edukiz betetzean datza. Ahalegindu al gara? Tresna horien erabilpena ez al da eremu horien estutasuna salatzeke erarik hoberena?

Nago, belarra azpian mozteko lanbidean ez garela oso jaiok.



## asteko pertsonaiak



**Jaime Iribarren**  
Intsumiso eta parlamentarioa

■ Jaime Iribarren Herri Batasunako parlamentarioa Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian epaitu zuten asteartean intsumiso delako. Soinean burusia, galtzontziloak eta sandaliak besterik ez zeramatzala, epaileari epaitegira behartuta joan zela eta bere kontzientzia inork ezin duela epaitu azaldu eta gero, ez zuen deus deklaratu. Jaime Iribarren Iruñeko espetxean dago gaur egun, epailearen arabera Leitzarango autobia erakitzen ari zen indus-makinari su eman ziolako. Polizia Nazionalak segurtasun neurri izugarrien artean eraman zuen Jaime Iribarren kartzelatik Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusira goizeko hamarretan. Berrehunen bat lagun bildu zen bertan Jaime Iribarreni elkartasuna adierazteko. ■



**Jesus Unanua**  
futbol atezaina

■ Jesus Unanua 26 urteko atezaina ez da hurrengo denboraldian Osasun izanen, taldeak ekainaren 30ean amaituko den kontratua ez berritzea erabaki baitu. Hala erran zioten astearte goizean jokariari, eta hemendik aurrera beste talde baten bila hasi beharko du. Osasunako jokalarien artean, hala ere, ez da Unanua taldetik at geratuko den bakarra hurrengo denboraldirako. Atezainaren bide bera jarraituko dute Ibañez, Martinez, Salva, Ziober, Oscar Garcia Valle eta Gaizka Cortinak. Dadie, Catillejo eta Elizondo, berriz, beste talde batzuetara bidali nahi ditu Osasunak. Pizo Gomezek ere, 1997ra arteko kontratua du, baina taldeak ez du berak jarraitzea nahi. Larrainzarrengan ere ez du konfiantzarik Osasunak. ■

## ahaztu gabe!



## EUSKAL EGUNA

**Iruñea:** Arrosadiako AEK-ko euskaltegiak eta beste hainbat taldek antolatuta, Euskal Eguna ospatuko dute bihar. Eguneko ekitaldiak goizeko 11.00etan hasiko dira. Ordu horretan, hain zuzen, suziria botako dute Ilargi Enetik. Suziriak zeruan eztanda egin ondoren, haurrentzako jolasak, hamaiketako eta erakusketa ibiltaria izanen dira. Ondoren, arratsaldeko 2.00ak aldera, herri bazkaria egingen dute Educacion y Descanso igerilekuetan. Fanfarreak alaituko du giroa bazkaldu bitartean.

Igerilekuetatik, arratsaldeko 4.30etan aterako dira kalejiran, eta 6.00etan txokolatada izanen da San Fermin peñan. Baina ez dago merezi duen Euskal Egunik euskal poteorik gabe. Arrosadiako euskaltegiak ez du ahaztu. Arratsaldeko 7.00etan izanen da Bukatutakoan, arratsaldeko 8.00ak aldera, fanfarrea izanen da berriro ere San Fermin peñan. Fanfarreak ezezik, Iñaki Alfarok ere kontzertua eskainiko du. Kantaldi partizipatiboa izanen da gainera, nahi duenak parte hartzeke aukera izanen du.

## adi!

### Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera. Zokobetailu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

### Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

### Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

### Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara Gauza guztien gaitetik, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

## Auritz

# Tirabirak sortu dira herriko alkatearen eta Organbidexka elkarteko kideen artean


Elkarteko kideek hegaztiak behatzen dituzten gainetan haritz eta pagoak landu nahi ditu

**O**rganbidexka Col Libre elkarteko kideen eta ehiztarien arteko tirabirak etengabeak dira Linduxen, Orreagako mendatefik hurbil. Bertan, hegazti migratzaileak behatzen dituzte elkarteko kideok. Aurizko alkatearen erabaki batek piztu du azkeneko polemika, kideok hegaztiak behatzen dituzten gainetan haritz eta pagoak landu nahi baititu. Orain aste batzuk, gainera, elkarteak erabiltzen zuen etxolari su eman zioten.

Erredakzioa / Iruñea

ORGANBIDEXKA COL LIBRE elkarteko naturzaleek Lindux hegazti migratzaileak behatzeko gunean jasaten duten egoera salatu dute berriro ere. Ez da lehen aldia, baina, batez ere mugaz bi aldeetako ehiztariekin izan dituzten tirabirak ugariak izan baitira. Linduxeko behatokia hamar urte daramate Organbidexka Col Libre elkarteko ornitologo eta naturzaleek.

Linduxeko zati bat Auritzen dago kokatua eta bertako Udalarekin izan ditu Organbidexka Col Libre elkarteak azken arazoak. Izan ere, orain arte artaldeek eta Organbidexkako kideek erabili izan dituzten gainetan haritzak eta pagoak landatzeko baimena eskatu baitzuen orain hilabete batzuk Aurizko alkateak. Organbidexka elkarteko ki-



Hegazti migratzaileak behatzen ditu Organbidexkak Linduxen.

ARTXIBOKOA

deak Aurizko alkateak hartu erabakiaren aurka agertu dira komunikabideetara igorri ohar baten bidez.

Beren ustez, Aurizko alkateak bere asmoa gauzatzen badu, «ez pasealariek ezta ornitologoez ere ezin izanen dute aurrerantzean bertatik ibili eta, era berean, egun lurrean diren ehiza postuak zuzaitzetan izanen dira usoak eta beste harrapatzeko. Aurizko ehiztariak gehiago hurbilduko dituzte eskopetak hegaztiengana, eta aurrean diren ehiztariak baino aukera gehiago izanen dute hegazti horiek harrapatze-

ko. Ingurugiro Zerbitzuaren akordioarekin, beraz, bi gauza lortzen ditu batera Aurizko Udalak», azaltzen dute Organbidexka elkarteko kideak.

Ez da hau, hala ere, Organbidexka Col Libre elkarteko kideen haserrea piztu duen gertakizun bakarra; izan da besterik ere. Orain dela aste batzuk, hain zuzen ere, orain arte Organbidexkako kideen etxola izandakoari su eman baitzioten ezezagun batzuek. Aipatu etxola zen kideon oinarritzako kanpamendua.

Lurrak komunalak izanda eta

bideak publikoak, batetik bestera oztoporik gabe ibiltzeko eskubidearen aurkako erasotzat jo dute Organbidexka Col Libre elkarteko kideek gertatutakoa. «Gauza bera gertatu zen L'Escrinet-eko mendatean eta berrikiago Larraun. Azken honetan, ehiztariak ez direnei mendian sartzeko baimena ukatu die alkatearen dekretu batek». Elkarteko arduradunen iritziz, «natura babesteko nazioarteko akordioak ahaztu eta begiak itxi egiten dituzte agintari publikoek edo, are okerrago, gehiegikeriak babesten dituzte agian». X

## Barañain

## Haizea Elkarteak bere eguna ospatuko du bihar

Herri lasterketa eta txistorrada izanen dira

Erredakzioa / Iruñea

BARAÑAINGO HAIZEA Elkarteak antolatuta, Haizearen Eguna ospatuko dute bihar Barañainen, azken urteetan bezala. Eguneko egitarauaren barruan, hain zuzen ere, Barañaingo lakuaren inguruan herri lasterketa egingen dute. Lasterketa hau antolatzen duten hirugarren urtea da aurtengoa. Emakumezkoak zein gizonezkoak, hiru mailatan banatuko dira lasterketan parte hartzeko.

Goizeko hamaiketatik aurrera, hasteko, 1982. urtetik aurrera jaiotakoek hartuko dute parte. 1.600 metroko zirkuituari itzuli bakarria eman beharko

diote. Ordu laurden geroago, 1979-1981 urteen artean jaiotakoek korrituko dute. 3.200 metroko zirkuituari itzuli bat eman beharko diote hauek. Azkenik, 1978 baino lehen jaiotakoek, 6.300 metroko zirkuitua izanen dute aurrean.

Lasterketan parte hartu nahi duenak bihar bertan eman dezake izena, lasterketa baino ordu erdi lehenago. Nagusiek 500 pezeta ordaindu beharko dute dortsala eskuratu ahal izateko. Lasterketako proba guztiak amaitzen direnerako txistorrada antolatu du Haizea Elkarteak partehartzaile guztientzat eta bertara hurbildu nahi duen ororentzat. X

## Iruñea

## Euskara aztergai bihar Txantreako Auzotegin

Euskara Taldeak antolatutako jardunaldian

Erredakzioa / Iruñea

EUSKARA TALDEAK antolatuta, jardunaldi soziolinguistikoa egingen dute bihar Iruñeko Txantrea auzoan, euskarak Iruñean eta bereziki Txantrean duen egoerari buruzko gogoeta egiteko asmoz. Auzotegi Kultur Zentroan egingen dute.

Jardunaldia goizeko bederatzietan hasiko da, aurkezpenarekin. Ondoren, bederatzi eta erdietan, lehenengo hitzaldia eskainiko du Mikel Belasko euskal filologo eta toponimia lanetako adituak. Iruñerrian euskarak izan duen presentzia eta historia eta Txantrea eta Iruñeko toponimia izanen ditu Belaskok az-

tergai mintzaldian.

Hamaiketean atsedena egin eta gero, bigarren hitzaldia hasiko da hamaika eta erdietan. Rosa Ramos euskal filologo eta Garesko Euskara teknikaria izanen da hizlari. Rosa Ramos euskarak Txantrean duen egoera soziolinguistikoa buruz mintzatuko da. Hitzaldia amaituta, eztabaida egingen dute gaiari buruz.

Bazkaria izanen da arratsaldeko ordu bietan eta horren ondoren, laurretan, jardunaldiko hurrengo saioa hasiko da. Txantreako Euskara Taldeko partaideek euskara Txantrean nola dagoen aztertu gogoeta egingen dute. X

## Altsasu

## Jaietako kartela egiteko lehiaketa antolatu du Udalak

Irabazleak

75.000 pezetako saria jasoko du

Erredakzioa / Iruñea

ALTSASUKO UDALEKO Kultur Batzordeak jaiak iragarriko dituen kartela egiteko lehiaketan parte hartzeko deialdia zabaldu du. Nahi duen orok har dezake parte aipatu lehiaketan, eta irabazleak 75.000 pezetako saria eskuratuko du. Partehartzaile bakoitzak, gehienez, jatorrizko hiru lan aurkez ditzake. Lanak aurkezteko epea ekainaren 27an amaituko da, eguerdiko ordu batean. Altsasuko Udalera eraman behar dira lanak, kartazal itxi baten barruan. Beste kartazal batean egile bakoitzak bere datuak eta lanaren leloa jarri beharko ditu.

Parte hartu nahi duten egileek, halaber, Altsasuko Jaiak 96 leloa agertu beharko dute euren lanetan, euskaraz eta erdaraz. Gaiari eta teknikari dagokienez, berriz, norberak nahi duena aukera dezake.

Aurkeztuko diren lanen artean irabazlea aukeratzeko epaimahaia osatuko du Udaleko Kultur Batzordeak. Batzordeko bertako kideak ezizik, arte ederrekin zerkusirik duten hainbat lagun ere izanen da epaimahalkide. X

## Zubitza

## Galarko Zendeako bestak ospatuko dituzte asteburuan

Herri bazkaria egingen dute igandean

Erredakzioa / Iruñea

GALARKO ZENDEAKO bestak ospatuko dituzte asteburu honetan Zubitza. Bihar, arratsaldeko zazpi eta erdietan, protesta ekitaldia egingen dute inguruan ezarri nahi duten hondakin toxikoen zabortearen aurka. Ondoren, gaueko hamarretan, afaria egingen dute, eta hamaikak aldera, berriz, Iñaki Aritza kantautoreak kontzertua eskainiko du. Kontzertua bukatuta, dantzaldia izanen da.

Igande eguerdian haurrentzat joko ekologikoak izanen dira. Parte hartu nahi duten haurrentzat autobusa izanen da Zubitza joateko. Cordovillatik aterako da goizeko hamaikak eta hamarretan.

Jokoak amaituta, herri bazkaria egingen dute arratsaldeko ordu bi eta erdietan. Bazkalostean sariak banatuko dituzte zozketei bidez eta akordeoi jole batek giroa alaituko du. X

Leitzako historiari  
buruzko erakusketa

# Lehengoz kontuk eta bizimoduk

Leitzarren bizimoduari, lanbideei eta ohiturei buruzko erakusketa antolatu du Kultur Taldeak

**L**eitzako Kultur Taldeak antolatuta, hemezortzigarren Kultur Astea abian da herrian. Horren barruan, *Lehengoz kontuk eta bizimoduk* izeneko erakusketa antolatu dute Itziar Altzelaik eta Jaione Astibia. Iazko Kultur Astean antolatu tresna zaharren erakusketaren jarraipena da aurtengoa. Iazko tresnen argaziak abiapuntutzat hartu eta Leitzako historia aztertu dute Udaleko artxi-boan gazteok.

Edurne Elizondo / Leiza

LEITZAKO KULTUR TALDEAK antolatuta, Kultur Astearen hemezortzigarren ekitaldia abian jarri zen joan den larunbatean eta igande honetan amaituko da. Aurtengo Kultur Astearako antolatutako ekitaldien artean, taldeko kide diren Jaione Astibia eta Itziar Altzelaik prestatu erakusketa dago udaletxean ikusgai. Bertara oraindik hurbildu ez denak, igandera bitartean du aukera, arratsaldeko seiak eta zortziak bitartean gaur eta bihar, eta eguerditik arratsaldeko ordu biak arte eta seietatik zortziak arte igandean.

*Lehengoz kontuk eta bizimoduk* Astibia eta Altzelairen erakusketak, izenak berak argi azaltzen duenez, Leitzako bizimodua, lanbideak eta ohiturak ditu oinarri eta iazko Kultur Astean egin tresna zaharren erakusketaren jarraipena da. Leitzako Kultur Taldeko bi kideok antolatu zuten aipatu erakusketa ere, urtebeteko lanaren ostean.

«Kultur Taldearen barruan betidanik izan da Leitzako aspaldiko kontu, bizimodu eta ohiturei buruz zer edo zer egiteko gogo», aipatzen du Itziar Altzelaik urretxuarrak. Orain dela bost urte ailegatu zen Leitzara eta ia hasieratik da Kultur Taldeko kide. Psikologian lizentziatua da. Gogo hori egia bihurtzeko konprometua hartu zuen Altzelaik Jaione Astibia leitzarrarekin. Ekologia ikasketak egin ditu honek eta joan den urteko erakusketa prestatzeko sartu zen Leitzako Kultur Taldean.


Konprometuz horren lehen emaitza, hain zuzen, iazko Kultur Asteko erakusketa izan zen. Frontoian, baserriz baserri ibili ondoren bildutako mila tresna inguru jarri zituzten ikusgai. «Tresna zaharrak ziren guztiak, nekazaritzarako, abeltzaintzarako, ikazkintzarako, basogintzarako zein etxerako tresnak, haria eta ehuna egiteko makinak, eta baita etxeko arropak eta ontziak ere», gogoratzen du Astibia.

Erakusketaren bidez, helburu



Mila tresna zahar inguru bildu zituzten Leitzako baserrietan.

OSKAR MONTERO



Herriko haurrak ere hurbildu dira udaletxera erakusketa ikustera.

OSKAR MONTERO

argia lortu nahi zuten, hala nola «herriari tresna horiek eta euren erabilera ezagutarazi, baita gaur egun erabiltzen ez den izen asko gogora ekarri ere». Erakusketatik herri osoa igaro zen eta Itziarrek eta Jaionek pozik azaltzen dutenez, arrakasta itzela izan zuen. «Helduen eta gazteen jakinmina piztu zuen, batzuen aspaldiko oroitzapenak gogorarazi zizkielako eta besteena herriko hainbat kontu ezezagunen berri eman zielako». Herriarren «bihotzetara ailegatu» zen erakusketa izan zen, finean, Jaionek dioenez: «Behin emakume heldu bat hurbildu zitzaigun eta 'bejon deizue-

la' erran zigun, 'halakorik guretzat egitea!'. Bihotza ukitu zion erakusketak, batez ere jende gazteak egina zelako».

Tresna zaharrekin egindako erakusketaren arrakasta ikusita, nolabaiteko jarraipena izan behar zuela argi ikusi zuten Itziar Altzelaik eta Jaione Astibia. Hori izan zen egun udaletxean dagoen erakusketaren hasiera.

**Burdinolak, lurra eta emakumeak** • Ia urtebeteko lanaren emaitza da *Lehengoz kontuk eta bizimoduk* erakusketa. Honen oinarria, berriz, joan den urteko erakusketako mila tresna

ingururen argazkiak. Horiek abiapuntutzat hartuz, Leitzako burdinolak, basogintza, nekazaritza, abeltzaintza, ohiturak eta beste hamaika bitxikeria aztertu dituzte Itziarrek eta Jaionek. Leitzako Udaleko artxi-boa izan da beren informazio iturri nagusia eta ia bakarra —bibliografia ere kontsultatu dute—. Agiri, paper eta liburu zaharren artean burua sartu eta 40 orrialdeko lan etnografiko txukuna osatu dute 1512. urtetik aitzinerako Leitzako ezagutzeko (urte horretan artxi-boa erre eta aurreko agiri guztiak galdu egin ziren).

Leitzako Udaleko artxi-boa

aurkitutako informazioaren artean, herriko burdinolei buruzkoa azpimarratzen dute Itziar eta Jaionek. «Indar handia izan zuten». Leitzan hamabi burdinola izan dira 1512. urtetik aurrera eta azkena 1930ean desagertu zen. «Udalarenak ziren guztiak eta kandela izeneko enkante motaren bidez banatzen zen horiek ustiatzeko eskubidea». Jaione Astibia azaldu digu kandela enkantearen berezitasuna: «Burdinolen enkantean, eskaintza bakoitzeko kandela bat pizten zuten. Kandelak piztuta ziren bitartean eskaintza horiek hobetzeko aukera zegoen. Kandelak itzaltzen zirenerako egindako eskaintzarik onenak irabazten zuten burdinola ustiatzeko eskubidea. Ogia, ardoa edo gaztainak saltzeko urtero banatzen ziren eskubideen enkantean, berriz, hiru kandela piztu eta azkena itzali orduko eskaintzarik onenak irabazten zuten».

Burdinolek indar handia badute ere, nekazariak izan dira historian zehar leitzar gehienak. «Lur guztiak komunalak ziren eta kandela enkantean banatzen ziren. Nekazariak, gainera, arau zorrotzak bete behar zituzten. Lur zati bakoitzean zer lantzen zuten argi azaldu behar zioten Iruñeko Erret Kontseiluari». Iratzea biltzeko, adibidez, epe zehatza ezartzen zieten nekazariak eta epe horretatik kanpo bilduz gero zigorra jasotzen zuten. «Nekazarien artean, gainera, giro xelebre zegoen eta batak bestea salatzen zuten etengabe, isunaren erdia jasotzen baitzuen salatzaileak».

Paper artean bilatzen, hain zuzen, herritarren arteko tira-bira asko eta askoren berri jaso izanak harriru ditu gehien Itziar eta Jaione. «Edozein huskeriagatik ere, alkatearengana jotzen zuten. Pleitu anitz izan zen, senar-emazteen artekoak, guraso eta seme-alaben artekoak, langileen artekoak eta abar». Alkateak epaimahaia osatzen zuten eta eurek zuten arazoa konpontzeko betebeharra. Konpondu ezean, Iruñeko Erret Kontseilura eramaten zuten auzia. «Batuetan, kartzelara bidaltzen zituzten. Harrigarria da», aipatzen du Jaione Astibia.

Leitzarren ohituren artean ere bada gauza harrigarriak Kultur Taldeko bi kideok azpimarratzen dutenez. «Ezkontzea, adibidez, oso zaila zen. Diru asko behar zen. Emaztegaian gurasoek zer emango zuten zehatz-mehatz adierazi behar zuten zerrenda bat eginez, baita azken painuelua ere. Eta bikoteak ondorengorik ez bazuen, ondasun guztiak gurasoei itzuli behar zizkieten». Emakumeak izan duen betebeharrari buruz, halaber, beti gizonaren itzalean bizi izan dela azaltzen dute argiro Jaionek eta Itziarrek.


Ohituren berri jasotzeaz gain, denborak utzitako altxor txikiak ere aurkitu dituzte leitzarrok

Leitzako historiari  
buruzko erakusketa

Udaleko artxiboan. Horien artean, besteak beste, 1927. urteko besta programa bat. Ekitaldi ugariaren artean, euskal-jai ospatu zuten urte hartako abuztuaren 13an eta 14an. Han izan ziren Euskaltzaindiko kideak ere. Programak jasotzen duenez, adibidez, Intzako Damaso aita kaputxinoak Leitzako esaera zaharrak irakurri zituen Leitzan euskal-jaiaren barruan.

Aurrean aipatutako hauek, Jaione Astibiak eta Itziar Altzelaik euren lanean jasotako bitxikerien adibide batzuk besterik ez dira, baina badira beste hamaika ere. Eta horiek guztiak, udaltxean ikusgai den erakusketan ezezik, beste modu batera biltzea merezi duela uste dute egileek. Horretan saiatuko dira.

Lortzen ez badute ere, pozik dira egindako lanarekin. «Gauza asko ikasi dugu. Batzuk guztiz arrotzak ziren guretzat eta halakorik gure herrian egin izan zenik ere ez genekien. Polita izan da hamaika bitxikeria horiek aurkitzea. Harrituta gelditu gara askotan», azaltzen du Jaione. Iritzi berekoa da Itziar. «Egia da beti begiratu dugula atzera, baina egun badirudi herri askotan ari direla halako lanak egiten. Gazteek egiten dituzte, gainera, askotan. Garrantzitsua da hori niretzat». Leitzari buruz, halaber, ikuspegi zabalagoa dute orain bi emakume gazteok. «Asko aldatu da herria urte hauetan zehar, baina badira historian zehar errepikatzen diren gauzak».



Itziar Altzelaik eta Jaione Astibiak prestatu dute Lehengo kontuk eta bizimoduk.

OSKAR MONTERO

## Eskulanen erakusketa igandean

E.E/Leitza

ORAIN dela hemezortzi urte jaiotzen Leitzako Kultur Taldea, ikastolaren inguruan. Ikastolako irakasleak izan ziren, hain zuzen, taldeak izan zituen lehendabiziko kideak, sortzaile eta bultzatzaile. Urteik urtera, baina, berrituz joan dira kideok eta egun jada ez da hasierako inor Kultur Taldean. Helburuak eta xedeak, hala ere, berberak izan dira beti, hala nola, Leitzan kultura mugitzea. Zeregin hori, gaur egun, Itziar Altzelaik eta Jaione Astibiak eta herriko beste sei bat lagunek hartu dute beren gain. Leitzan, behintzat, kulturaren mundua ez dadila gelditu.


Horretarako hamaika ekitaldi antolatzen dituzte urtean zehar Kultur Taldeko kideek, hilerio zerbait, antzerkia dela, kontzertuak direla, haurrentzako ekitaldiak direla, mendi astea dela... Bada, gainera, urtero antolatzen duten ekitaldi berezia, Kultur Astea, alegia. Taldeak bezala, hemezortzi urte bete ditu aurreko Kultur Asteak.

Jaione Astibiak eta Itziar Al-

tzelaik prestatu erakusketa ezezik, izan da aste osoan Kultur Taldeak antolatutako beste ekitaldirik, eta oraindik ez dira bukatu. Igande honetan, azken hamabost urteetako ohiturari jarraiki, eskulanen erakusketa egingen dute Leitzako plazan. Bertan izanen dira herriko eta inguruko artisauek euren produktu, bitxikeria, lan eta tresnak erakuskeko prest. Aipatu erakusketa antolatzeko, Leitzako Udalaren, tabernen, denden eta enpresen eta Nafarroako Gobernuaren laguntza izan du Leitzako Kultur Taldeak.

Goizko hamaiketean zabalduko da erakusketa eta arratsaldeko zazpi eta erdiak arte izanen da ikusgai bertan bildutako guztia: buzingintza, lore lehorrak, zuhaitz zainez egindako irudiak, kilikiak, argizarigintza, kobre eta latoizko eltze eta farolak, larrua, alpaka, oinetakoak, upelak, ehoziri-lana, makramea, tapizak, zura, saskiak, pilotak... Baita jatekoak ere, hala nola, piper opilak, taloak, txokolata, ogia eta euskal pastela.

Artisauen lana ikusteko para-



Iaz bildutako tresna zaharren argazkiak ikusgai dira udaletxean.

OSKAR MONTERO

da ezezik, bertsolariak ere lanean ikusi eta entzuteko aukera izanen dute igandean Leitzara hurbiltzen direnek, eguerdiko ordu batean, hain zuzen ere. Eta ondoren, herri bazkaria izanen da eskolako jantokian. Bertsolariak ere bertan izango dira, Sebastian Lizaso eta Xabier Zeberio ariko dira kantuan. Bazkalostekoaren ondoren, musika izanen da. Arratsaldeko zazpietatik aurrera

txaranga ibiliko da Leitzako kaletan barrena giroa alaituz.

Igandeko eskulanen erakusketarekin amaituko da aurtengo Kultur Astea. Erakusketak izan dira honetan nagusi. Altzelaik eta Astibiak antolatutakoaz gain, izan da besterik ere Leitzan, hala nola, *Euskara betiko mintzoa* —haur anitz bildu ditu bere inguruan eta Nafarroako beste hainbat herritan egon ondoren

iritzi da Leitzara— eta herriko jubilatuek antolatutakoa. Azken horretan herriko zortzi emakume jubilatuek egindako ehoziri-lana, maindireak, koadroak eta bes-telakoak ikus daitezke igandera bitartean. Erakusketa horietaz landa, kirolak, hitzaldiek eta Karrape Irratiko saioek ere izan dute lekurik Leitzako Kultur Taldeak antolatu Kultur Astean. X

Azken hamabost urteetan bezala, eskulanen erakusketa egingen dute igandean Leitzan, goizko hamaiketatik

aurrera



# Izarbeibarreko Euskararen Eguna

Eunaten ospatuko dute igande honetan bigarrenenez, bailarako gurasoen elkarteetako kideek antolatuta

**E**unaten Izarbeibarreko Euskararen Eguna ospatuko dute igande honetan, Garesko Zabaltzagain Gurasoen Elkarteak eta Obanosko Gurasoen Elkarteak antolatuta. Aurtengoa bigarren ekitaldia izanen da eta euskaltzale ororen jai izatea lortu nahi dute antolatzaileek. Igan-dean jokoak, antzerkia, musika, bazkaria eta beste hainbat ekitaldi izanen dira Eunaten.


Edurne Elizondo / Iruñea

JOAN den astean eta aste honetako asteartean ere, Euskararen Eguna ospatu dute Lizarraldeko ikastetxe publikoetako A eredu-ko ikasleek eta irakasleek. Igan-dean, berriz, Izarbeibar bailarako biztanleek ospatuko dute egun hau. Eunaten izanen da Izarbeibarreko Euskararen Eguna, Garesko Zabaltzagain Gurasoen Elkarteak eta Obanosko Gurasoen Elkarteak antolatuta. Iaz antolatu zuten Euskararen Eguna lehen aldiz bailaran. Aurtengoa, eskolarteko jaialdia ezezik, herritar ororentzako besta izan da dila lortu nahi dute antolatzaileek eta bailarako biztanle guztiak deitu dituzte Euskararen Egunean parte hartzera.

Euskararen Eguna igandean ospatuko badute ere, gaurko ere prestatu dute ekitaldirik antolatzaileok. Mikel Belasko euskal filologo nafarrak, hain zuzen ere, Izarbeibar bailarako toponimiari buruzko hitzaldia eskainiko du. Belasko, zehazki, bailarako herri eta alor izenen esanahi eta historiari buruz mintzatuko da. Hitzaldia Obanosen izanen da, ikastetxean, eta arratsaldeko zortzi eta erdiak inguruan hasiko da.

Igan-dean, berriz, goizean goiz hasiko dira eguneko ekitaldiak. Bizikleta marxa izanen da lehenengoz. Garesen hasiko da goizeko hamarrak eta laurdenetan. Bertan bildutakoek Obanosko txirrindulariekin egiten dute topo ordu erdi geroago eta haiketetan, azkenik, Muruzabale-ra ailegatuta, bertakoekin elkartuko dira. Guztiak batera ailegatuko dira, beraz, Eunatea, Euskararen Eguna ospatzeko.

Eunaten bildu ondoren, meza izanen da euskaraz. Obanosko abesbatzak hartuko du parte. Meza bukatuta, arratsaldeko ordu batean bailarako dantzari, gaitero, txistulari eta trikitilari-ekin euren ikuskizunak aurkeztuko dituzte. Gainera, herri kirolak izanen dira. Haur eta helduek, sokatiran, zaku lasterketan eta beste hamaika jokotan parte hartzeko aukera edukiko dute. Buruhandi eta erraldoiek ere ez dute hutsik egiten Izarbeibarreko Euskararen Egunean. Giroa alaituko duen gauza ugari izanen da, beraz, Eunaten. Ondoren, arratsaldeko ordu bi eta erdiak



Euskararen Eguna ospatuko dute igandean Eunaten.

EGUNKARIA

«Izarbeibarreko Euskararen Eguna bailarako biztanle guztiei eskaini nahi diegu aurten»

aldera, herri bazkaria egiten dute bertara hurbildutakoek eta bazkaldu eta gero, arratsaldeko laurak aldera, antzerki ikuskizuna izanen da haurrentzat. Euskararen Eguna ospatzeko, beraz, denen gustuko ekitaldiak prestatu dituzte antolatzaileek igande honetarako.

Euskararen Eguna bailarako gurasoen elkarteetako kideen ekimenez sortu zen iaz

Bailarako euskaltzale guztien besta bihurtu • Izarbeibarreko Euskararen Eguna bailarako gurasoen elkarteetako kideen ekimenez sortu zen iaz. Garesen, hain zuzen, D eta A ereduak dituzte ikastetxe komarkalean. Obanosen, berriz, A eredu dute, baita Mañeru eta Ziraukin ere. Eredu horietako ikasleentzako, beraz, antolatu zuten iaz Euskararen Eguna, ikastetxetik kanpo ere euskara bultzatzeko asmoz, antolatzaileen arabera. Eta aurtengo bigarren ekitaldiaren ondoren ere, beste asko prestatzea espero dute.

Izarbeibarreko biztanleek Eunaten aukeratu dute aurten Euskararen Egunean biltzeko leku. Izan ere, aspaldian bailaran Eunatea egiten zen erromerian baitu jatorria Euskararen Egunak.

«Lehen egiten zen erromeria berreskuratu nahi genuen, baina ardatza euskara izanik», azaltzen du Epi Arakama Garesko ikastetxe Gurasoen Elkarte-ko kideak. Euskararen Eguneko programan jasotzen denez, gainera, Eunaten izan da historian zehar Izarbeibarreko bihotz eta hiriburua. «Hori da, beraz, lekuri-rik aproposena».

Izarbeibarreko Euskararen Egunaren bigarren ekitaldiaren atarian daudela, pozik eta baikor agertzen dira antolatzaileak. Iazko ekitaldiari dagokionez, «guztiz positibotzat» jotzen dute. «Lehen aldia izateko oso ongi ateratzen dena. Egun zoragarria izan genuen eta gurasoek eta haurrek pozik hartu zuten parte eguneko ekitaldi guztietan». Iazko ekitaldiaren arrakasta kontuan hartuz, igandean ere Eunaten jende mordo biltzea espero du Epi Arakamak.

Bada, hala ere, ekitaldi bi hauen artean ezberdintasunik. Izan ere, iaz guraso eta haurren arteko jai izan zena, Izarbeibarreko euskaltzale guztien besta bihurtu nahi dute aurten. «Euskararen Eguna bailarako biztanle guztiei zabaldu nahi diegu».

Hori dela eta, bailarako talde guztiak gonbidatu dituzte. «Pixkanaka-pixkanaka, Euskararen Eguna indartuz joatea lortu nahi dugu, urtetik urtera jende gehiagok parte hartzea», azpimarratzen du Epi Arakamak. Eta baikor agertzen da, «iaz, jada, ikusmina sortu baituzten Euskararen Egunak herritarren artean, harrera ona egin zioten. Aurten, jende gehiago biltzea espero dugu. Izan ere, bada euskararen inguruan mugitzen den talde anitz bailaran eta guztiak elkartu nahi ditugu Eunaten bestan». X

## ‘Murugarren’ berria kalean

IZARBEIBARREN bada urte osoan zehar Euskararen Eguna ospatzen duenik ere, Murugarren bailarako aldiria, alegia, 1993. urteko martxoan sortu zenetik, hiruhilabeteko kalera-tzen eta banatzen dute, urtean lautan. Hiru urteko ibilbidea egin eta gero, sendotuz doa Murugarren aldiria-riaren proiektua.

Proiektu honek izen zehatza du atzean, Angel Velezena alegia, bere ekimenez sortu baitzen. Nafarroako beste hainbat txokotako adibideak erdu-tzat hartu eta Garesen ere aldiria sortzeko ideiaz mintzatu zen orduan Udaleko euskara teknikaria zen Koldo Azkonarekin. «Ados jarri eta Murugarren sortu zen», gogoratzen du Angel Velezek. Berekin batera, zazpi lagunek osatutako lan taldeak egiten du lan egun. Bailarako hain-

bat herritan ere laguntzaileak dituzte.

Hasieran Garesko aldiria izanen zela pentsatu zuten baina berehala ikusi zuten Murugarren Izarbeibarren osoko herrietara zabaltzeko beharra. «Herri askotan badaude egun euskara ikasten ari diren taldeak eta ikastetxeetan ere D edo A ereduak badaude». Horientzat guztientzat, oso tresna erabilgarria da Murugarren aldiria Angel Velezen ustez.

Edukari dagokionez, bistan denez, bailarako herrietan buruzko berriak dira Murugarren aldiria jasotzen dituenak. Zenbaki batetik bestera aldatzen ez diren sail finkoak ditu, besteak beste, lehen orrialdeko editoriala, elkarrizketa, erreportaia, euskaltegien txokoa edo ume euskaldunen txokoa.

Murugarren aldiria-

ria zortzi orrialdeekin sortu zen 1993ko martxoan baina egun hamabi ditu. Horixe da azken hilabeteetan aldiria arduradunek egin duten berrikuntzetako bat. Orrialde kopurua gehitu ezezik, bada beste sail berririk ere, lehiaketa, sukaldaritza-ren txokoa eta agenda, esaterako. Berrikuntza hauek guztiak azken alean ezagutu ahal izan zituzten Murugarren aldiria irakurleek.

Hurrengo zenbakia aurki izanen da kalean, ekainaren amaieran hain zuzen ere. Angel Velezek irakurleek zenbaki berri honetan aurkituko dituzten gauza batzuen berri eman digu. Erreportaia, adibidez, ETB ikusi ahal izateko orain 11 urte jarritako errepikagailuaren gaia jorritako du, gertakizun hura gogoratze-ko asmoz. Lehiaketaren

atalean, berriz, txirrindularitza denboraldia abian dela kontuan hartuz, kirol honi buruzko galdera saila plazaratuko du Murugarren aldiria irakurleek, irakurleek erantzun ditzaten. Irabazleentzat, gainera, sariak izango dira.

Murugarren aldiria 200 ale argitaratzen ditu hiruhilabeteko eta postaz banatzen ditu bailarako irakurleen artean. Ikastetxe, euskaltegi eta besteetan ere banatzen dituzte. Zenbaki bakoitza egiteko, lan taldea osatzen duten zazpi lagunak elkartu eta gaiak aukeratzen dituzte. Argitaratu baino hamabost egun lehenago, azkenik, material guztia bildu eta biribiltzen dute. Murugarren aldiria irakurleentzako, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jasotzen dute ardura-dunek.

◆ Xabier Zuazu ◆ Labrit Nafarren Elkarteko ordezkaria

# «Gurea ezin da nostalgia izan»

**A**steazkenean aurkeztu zen Iruñean heldu den ekainean Irunen egingo den Nafarren Eguna, bertako Labrit Elkartek antolatuta. Hirugarren aldia da mugako herrian bizi diren nafarrak biltzen direna, eta oraingoan aurkezpen ofiziala egin nahi izan dute Nafarroako hiriburuan, «zertxobait eskatzeko» haien hitzetan.

Alberto Barandiaran / Iruñea

NAPARDI elkartean egin zuten prentsaurrekoaren aurretik Labrit elkarteko kideek nahikoa lan hartu zuten kazetarientzat pin-txoak eta zer edana prestatzen. Agerraldia, beraz, giro onekoa izan zen, ohi ez bezalakoa.

■ **Nondik sortu zitzaizuen Nafarren Eguna antolatzeko ideia?**


Idea sortu zen Irunen elkar ezagutu genuenean. Sanferminetako entzierroak ikusteko taberna batean biltzen ginen lanera sartu baino lehen, eta denok nafarrak ginela konturatu ginen. Harremana horrela sortu zen. Gero pentsatu genuen nafarren afaria egin behar genuela eta hasieran uste bagenuen hogei bat izango ginela, azkenean 250 inguru bildu ginen. Orduan, konturatu ginen ezin genuela bakarrik bazkari bat egin, eta musikariak ekarri genituen, meza antolatu genuen joandako nafarrak gogoratzeko, feria... Eta gero eta gauza gehiago egin nahi ditugu.

■ **Zenbat nafar zaudete Irunen?**

2.485, Irungo Udalean dauden datuen arabera. Hondarribian ere ia 500 dira, eta falta zaizkigu Hendaiako datuak. Gehienak dira Baztan-Bidasoakoak, eta Iruñekoak 300 inguru dira. Hala ere, Bortzirietakoak eta Malerreka-koak dira gehienak.

■ **Aurretik ezagutzen al zenuten Iruñea?**

Guztinak ari gara elkar eza-



OXabier Zuazu, ezkerrean, Labrit elkarteko kideekin Iruñeko Napardi elkartean.

JOXE LACALLE

gutzen. Hori bai, harreman handiak egin ditugu duela bi urteko topaketaren ondotik. Hasi ginen denei eskutitzak bidaltzen, taldeko bazkide egin zitezten, gonbidapenak bidali genizkien...

■ **Labrit elkartea osatu zenuteniaz. Zenbat bazkide zarete?**

Hirurogeita hamar bazkide gara, eta gero, inguruan daudenak 300 bat izango dira. Bi mila pasatxo diren horiek lortu arte...

■ **Urtean zehar beste ekitaldiren bat egin al duzue?**

Ez, egin ditugu bazkari pare bat gure artean, eta hor bildu gara berrogeita hamar bat lagun edo, baina badugu asmoa aurrerantzean gauza gehiago egiteko. Adibidez, Tourrera joatea Indurainen aldeko pankarta batekin -Iru-

nen badago jada Indurainen Adiskideen elkarte bat-, edo txangoa egitea Erriberrira, edo Fiterora... Beti nafartasunaren gaia hartuta.

■ **Egin dituzuen egun horietarako laguntzarik izan al duzue?**

Egia esanda, ez dugu azpiegiturarik gure artean antolatzeko, baina Nafarroako Gobernuak bidali zigun dokumentazio turistikoa, aldizkariak eta txosten kulturalak... Baina, are gehiago, guk interesa genuen Nafarroako Gobernua han egon zedin erakusmahai batekin, gauzak banatzeko eta. Gero zenbait enpresak materiala bidali ziguten, baina presentzia handiagoa nahi genuke. Hau da, ez dugu bakarrik botilak bidaltzea nahi, han egotea nahi dugu. Aurten, adibidez, izango ditugu dozena bat erakusmahai liburuekin, ardoarekin eta zenbait gauzarekin. Nafarroaren Feria egin nahi dugu, azken finean. Musikak, jakina, ezin du hutsik egin, eta Erriberako joterok eta Berako txaranga bat era-

mango ditugu. Egoten den giroak harritu egiten zaitu, azaltzen direlako Beasainen eta Donostian bizi den jendea.

■ **Zer duzue, bada, nostalgia-edo Irunen egoteagatik?**

Esaten dutenez, nostalgia zapuzte txiki bat da. Gurea ezin da nostalgia handia izan, sei kilometrorra Bera dugulako, baina bai, badago sentimendu berezi bat. Lehen urtean ohartu ginen jota bat abesten hasi zirenean bati baino gehiagori isuri zitzaiola malkoren bat.

■ **Badakizue Gipuzkoan antzeko beste elkarterik ba ote dagoen?**

Badira, bai, Irungo Indurainen Adiskideak elkarteaz gain. Legazpian, adibidez, sortu nahi dute gurea bezalako elkarte bat, eta Tolosan ere merkatu bat egin nahi omen dute Nafarroako produktuekin. Gainera, gure ideia da elkarte bat osatzea, eta urte osoan zehar hitzaldiak eta ekitaldi batzuk antolatzeko.

■ **Zergatik etorri zarete Iruñeraino hirugarren egun hau aur-**

s o s l a i a

Xabier Zuazu Iruñean jaio zen, ama bizkaitarra zuen, eta haurra zela iritsi zen Irunera. Egun, bera da 70 bazkide inguru biltzen dituen Labrit elkarteko burua, eta bera tematu zen aurkezpena Iruñean egin behar zela Nafarroako Gobernuarekin oraindik lortu ez dituzten harremanak nolabait errazteko asmoz.

Aurtengo egunaren prestakuntzak lan franko eman die, baina aurrekontu eskasa dute beti, ozta-ozta pare bat musika talde eraman eta meza egiteko. Hirugarren ekitaldi honetarako Erramun Martikorena abeslari zuberotarra ekartzeko gogoz zeuden, baina aurrekontuak hainbestera eman ez eta Tuterako joterok eta Berako Zizkuitz txarangak alaituko diete bazkalondoa.

Diotenez, eguna ez da Irunen bizi diren nafarrentzat bakarrik, eta nahi duena joan ahal da. Derrigorrezkoa da nafarra izatea, edo Nafarroa barnean eramatea, edo egun on bat pasatu nahi izatea.

keztera?

Iruditu zitzaigun hona eskatzera etorri behar genuela. Ez dirua eskatzera, eskuak zabalik eta garbi, baina iradoki nahi genion Nafarroako Gobernuari, apalatsunez, gehiago eman diezagutela. Ez dugu dirua nahi, baina nahiko genuke, adibidez, karpa bat etorriko diren feriakide horientzat, horrela gehiago izango zirelako. Ez da beldurtzeko, baina esan nahi diegu laster joango garela zerbaiten eske.

■ **Zenbat jende etortzea espero duzue aurtengo jai honetara?**

Nik uste dut 300 bat izango garela. Irigarri besterik ez dugu egin, eta dagoeneko batzuk joan dira txartelak eskatzera. Oraindik ez ditugu inprentatik atera eta dagoeneko jendea eskaka ari da. Zenbat jende zaudete?: Hamabi bat, hor nonbait. Denak Irungoak? Ez, ez, Irungoa bat ere ez. Beno Irunen bizi, bai, denok bizi gara han. Badira Lizarrakoak, Iruñekoak, Etxalarkoak, Agoizkoak, Arronizkoak...

LUCRÁNDO

ZALDI ERĖA



Eskaleen hankak traba (itsuski)  
txikiteora (bakean)  
potcatzera (borrokari)  
joaki garenean (kuadrila)  
parte zaharretako (geure)  
kaleen xarma (narro)  
dastatu bidenabar (ziraldoka)